

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2021eko abenduak 30 • 1211. zenbakia

AGUR 2021

URTEKARIA



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia ebakuntza, kataratak
eta presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com

Xoparitu
eibar

Txartela ZOKKETA

TXARTELA EROSI DUTENEK
PARTE-HARTUKO DUTE.

- ZOKKETA: URTARRILAK 4an
- SARIA: 100€ko 5 TXARTEL



erosieibarren.eus
T. 747 400 919

DENDAK, ZERBITZUAK, OSTALARITZA ETA AISIALDIA
EIBARKO 180 ESTABLEZIMENDU BAINO GEHIAGO

BULTZATU HIRIA

Txartelaren zenbatekoa hainbat zatitan banatu daiteke. Iraungitze data gabe



Eibarko

PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

M^a MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.
Tel. 943 20 17 03
Fax. 943 70 20 49
m_ari_sanz@hotmail.com

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Urtekaria

Urte zaharrari agurra, urte berriari egurra

Ailegatu zaigu urteari agur esateko garaia, baina aurretik 2021. urte honek eman duena laburbiltzen ahalegindu gara esku artean daukazuen aldizkari berezian. Urtekarian hilerik hile jaso ditugu Eibarren gertatu diren albiste nagusiak, zuekin batera errepatatzen joateko. Gainera, aurtengoa urte berezia izan da gurean, Eibar herria sortu zela 675 urte bete direlako. Horregatik, efemeride garrantzitsu horren inguruan antolatu diren jardueri tarte berezia eskaini nahi izan diegu eta, besteak beste, Ego Ibarra batzordearen eskutik argia ikusi duten "Atzo goizeko ipuiñak (bene-benetakuak)" bildumako biñeta batzuk ere bildu nahi izan ditugu.

Eta oraingoan berritasunekin gatoz: irailaz gerotiz gure ikus-entzunezkoen atala indartzeko lanean ari gara eta, Internet bitartez zabaltzeko egin ditugun bideo kopuruak ez ezik, horien kalitateak ere modu nabarmenean egin du gora. Horri esker, irailtik hona grabatu eta ekoiztutako irudiekin bideoa prestatu dizuegu. Ikusi nahi baduzue, eskaneatu QR kodea.



ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON



Hurrengo alea urtarrilaren 14an

Esku artean duzun ale hau aurtengo azkena da, eskutik ihes egiten ari zaigun urteari errepassoa egiten diona. Datorren astean Errege Egunarekin sortutako "zubia dela-eta", ez da alerik izango, eta hurrengo urtarrilaren 14an kaleratuko dugu. Bitartean ondo izan eta aprobetxatu!

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

NORBERE BURUA ERAKUTSI.- Nonbaiten azaldu, nor bere burua nabarmendu. "Eusko-lan-gilleak!... Gaur da eguna zuen buruak erakusteko Eibarren!".

NORBERE BURUARI GUTXIETSIRIK.- Akonplejatuta egon, gaztelerazko 'complejo de inferioridad' euki. "Errenka egitten ebala-ta, bere buruari gutxietsirik bizi zan".



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Periko Iriondo
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Oinarrizkoak ez diren jarduerak 01:00ean ixtea erabaki dute

>>> Martitzenezan LABI bildu ondoren, neurri murriztaileak zorrozteko erabakia hartu du Eusko Jaurlaritzak. Horrela, atzotik hasita urtarrilaren 28ra arte, oinarrizkoak ez diren jarduerak (ostalaritza, merkataritza eta kultura) 01:00ean itxi beharko dituzte, tabernetan zutik kontsumitzea debekatuta egongo da, barnealdeetako edukiera %60koa izango da gehienez eta mahai bakoitzean 10 lagun elkartu ahal izango dira asko jota. Gabonetako bazkari eta afariei dagokienez, Urkullu lehendakariak gehienez hamar

lagun elkartzeko gomendioa egin du.

Aipatutako neurriez gain, barnealdeetan egiten diren ekitaldietako edukiera 600 lagunekoa izango da gehienez eta 800 lagunekoa kanpoaldeetan egiten diren ekitaldietan. Eta barnealdeetan kirola egiteko, ostera, gehienez hamar laguneko taldeetan egin ahal izango dira eta aldagelek %50eko edukiera izango dute.

Gabonetan, gainera, dendeke ezingo dute goizeko 08:00ak baino lehen zabaldu urtarrilaren 1ean eta 6an.

Presoen aldeko mobilizazioak antolatu dituzte

>>> Eibarko Sarek hainbat mobilizazio antolatu ditu eguntarako. Urteko azken egunean, barixakuan, 19:00etan Untzategatik abiatuko den manifestazioa deitu dute. Eta urtarrilaren 1ean, berriz, Kalamuara igoko dira eta bertan talde-argazkia egingo dute, 10:30ean. Bestalde, urtarrilaren 8an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia egin dute. 17:00etan hasiko da, La Casillan, eta bertara joateko autobusa egongo da. Izena emateko Buenos Aires eta Guridi tabernetara joan daiteke.



Merkadilloa Toribio Etxebarrian egingo da

>>> Azken bi asteotan bezala, datorren astean ere Toribio Etxebarria kalean egingo da asteroko azoka, Txaltxa Zelaian beharreen. Gabonetarako bertan barrakak ipini dituztela eta, horiek kendu arte merkadilloa Toribio Etxebarria kalean egingo da Udalak.



●●●
FUNEUSKADI
Grupo Asistia

●●●
FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89
ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK
943 20 09 18

Urkizu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus



Untzaga eta Beheko-Tokia jubilatutako etxeak hobetzeko lanak

>>> Udalak hainbat lan atera ditu lizitaziora Untzagako eta Beheko Tokia jubilatutako etxeak hobetzeko eta eraberritzeko. Untzagako Zentro Sozialean arkupea itxiko da, toki gehiago izateko. Beheko Tokiari dagokionez, Udalak lagako duen lokal batean hainbat egokitzen lan egingo dira. Untzagako Jubilatuen Etxeko arkupea ixteko lanak 93.248 euroan irten dira lizitaziora, eta obrak egiteko epea 12 astekoa izango da. Karmen kaleko lokala egokitzeko lanek, berriz, 111.797 euroko kostua dute eta 18 aste-

ko egitaritze-epea. Bi kasuetan, interesa duten enpresek eskaintzak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da.

Untzagako proiektuan eraikinaren sarbide nagusira ematen duen portxea kenduko da, toki hori eraikinaren instalazioetan txertatzeko. Horretarako, espazioa ixteko erabiliko den kristal-itxitura beheko solairuan portxearen zati bat txertatu zenean egin zenaren antzekoa izango da. Fatxada berriari ate bikoitza ipiniko da eta proiektuak beste jarduerara osagarri batzuk ere jasotzen ditu.

Udal aurrekontuaren zirriborroari 33 proposamen aurkeztu dizkiote

>>> Aurreko astean Bilgunean emandako prentsaurrekoan azaldu zutenenez, EH Bilduk Osoko Zuzenketa eta 3,5 milioi euroko balioa duten 33 emendakin partzial erregistratu ditu. Gorka Errasti taldeko bozeramaileak esandakoaren arabera, kultura eta sormena, aisialdia eta herriko eragileak, hirigintza eta irisgarritasuna, landa eremua eta lehen sektorea, garapen ekonomikoa, parte-hartzea eta udal langileria dira EH Bilduk azpimarratu nahi izan dituen gaiak.

Errastiren berbetan, "42.300.000 euro inguruko

aurrekontu-zirriborroa aurkeztu du PSEk datorren 2022rako, 2021ekoa baino %10 handiagoa. Hirigintza eta batez ere Obrak saileko aurrekontuetan berpizte bat planteatu dute. Irisgarritasunean, obra txikietan, asfaltatzeetan edo eta mota askotako ikerketa eta proiektuetan igoera handiak aurreikusi ditu PSEren udal gobernuak".

Bestalde, ekialdea biziberritzeko EH Bildu eta PSEren akordioan jasota dauden "ekin-tzarik sozialenak" ere 2022an martxan jarriko direla nabarmendu zuten agerraldian.



 **centro médico eibar**

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikoak	- Kirurgia baskularra
- Dermatologia	- Koloproktologia
- Dietetika / Nutrizioa	- Neurofisiologia
- Erizaintza	- Otorrinolaringologia
- Familia medikua	- Psikologia
- Fisioterapia	- Radiologia
- Foto-depilazio Unitatea	- Traumatologia
- Kardiologia	- Urologia
- Kirurgia	

Urkizu, 18
943120194

MUGIKA

Harategia - Urdaltegia
Carnicería - Charcutería



Baserriko Haragia



Gabonetako doinuak eskaini zituzten txistulariek Untzagan

>>> Usartza Txistulari Taldekoek barixakuan eman zuten Gabonetako kontzertua, Untzaga plazan. Kontzertuan metal boskotearen, perkusioaren eta

ahotsaren laguntza izan zuten eta, Euskal Herrian oso ezagunak diren Gabon kantuekin batera, beste herrialde batzuetakoak ere jo zituzten.



Olentzero eta Mari Domingi bisitan etorri zaizkigu aurten ere

>>> Osasun-egoera dela eta, aurten ere ezin izan da Olentzeroren kalejirarik egin, baina, hala ere, haurrek agurtzera joateko aukera izan zuten udaletxeko patioan. Iaz egindakoari jarraitu zaio aurten ere eta, beraz, aurretik txanda hartuta zuten familiekin egon ziren Olentzero eta Mari Domingi barixaku goizean.

Astebarruan, berriz, herriko ikastetxeetara bisitan joan zen Olentzero (argazkian Amaña ikastetxeko ikasleak).

Bestalde, Errege Magoen bisita urtarrilaren 5ean izango da, 17:00etatik 20:00etara, Udaletxeko patioan. Kasu honetan ere alde aurretik txanda hartu dutenei bakarrik lagako diete sartzan.



Musika Eskolako kontzertua

>>> Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eskaini zuten aurreko astean Coliseoan.

Urtebete baino gehiago egon dira zuzeneko emankizunak eskaini gabe. Beraz, oso berezia izan zen emanaldia.



Horra, horra... Biraka

>>> Jendetza joan zen abenduaren 22an Errebal Plazara, Biraka dantza taldekoek Gabonetarako prestatu zuten "Horra, horra Biraka" dantza ikuskizuna ikustera. Aspaldiko partez,

Biraka dantza taldekoek berriz ere jendearen aurrean aritzeko aukera izan zuten eta publikoak oso gustora ikusi zituen dantzariak aurkeztutako koreografia ikusgarriak.

Patinatzeko izotz pista zabaldu dute Errebal Plazan

>>> Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak haurrentzat Gabonetarako prestatu duten programazioa biribiltzeko, izotz pista sintetikoa ipini dute Errebal Plazia eraikinean, patinatu nahi dutenentzat. Urtarrilaren 9ra arte egongo da martxan eta 3 euro balio du (doan merkatarien bonoarekin).





Atzo goizeko ipuinak, 675 urteko historia kontatzeko

Eibarko herriaren sorreraren 675. urteurrenean (1346-2021), Jose Antonio Azpilikueta marrazkilariak eta haren seme Martinek gure historiaren parte diren pasadizoak eta istorioak ekarri dizkigute gogora, urtean zehar marrazten joan diren biñeten bitartez. Guztira 20 biñeta egin dituzte, mende bakoitzeko bi, gutxi gorabehera, guztiak Eibarko euskaran, eta Ego Ibarra batzordearen webgunean ikus daitezke denak, “Atzo goizeko ipuinak (bene-benetakuak)” izenburuko atalean. Zenbaki honetan lehen hamar biñetak jaso ditugu eta urtarrilaren 14ko alean beste hamarrak kaleratuko ditugu.

Ego Ibarra batzordetik adierazi dutenez, “gure historiaren pasarte horiek aukeratzeko, beste agiri batzuen artean, Javier Elorzaren *Eibar: orígenes y evolución. Siglo XIV al XVI* liburua, Nerea Aretaren *Eibarko Efemeridiak. Kronika Historikua 1936* parte liburua eta *Eibar* aldizkaria erabili dituzte. Lehen biñetan, esaterako, Eibarko herriaren fundazioa (1346ko otsailaren 5a) kontatzen du Jose Antonio Azpilikuetak, bere erara, tartean Jaen, Alfontso XI.a, Villanueva, San Andres, Hiri Gutuna

eta koronabirusa ezin hobeto irudikatuz. Eta bigarren biñetarako, berriz, Udal Artxihoak gordetzen duen agiririk zaharrena hartu du hizpide Martin Azpilikuetak”.

Hala, XIV. mendean hasi eta gure egunetaraino, herrian esanguratsuak izan diren hainbat gertakari irudikatu dituzte Azpilikueta tarrek, beti ere marrazkilarien umorea tartean dela: eskandalua San Andres elizan, 1557ko martxoaren 28an, elizkizunak ospatzen ari ziren bitartean; 1563. urteko martxoaren 11n, Pio IV.a Aita

Santuak Arrateko jaia Kontzezio egunetik irailaren 8ra aldatu zueneko; Errepublikaren bezperan bertan nola hasi ziren Eibarko “zapatu inglesak”; Eibarko San Andres Kontzeju zaharraren 1501eko Ordenantzak; Agustinen Erreformako komentuko lehenengo mojak, Errebalgo Agustinak Eibarrera etorri zirenekoa, 1603. urteko maiatzaren 7an; herriko bi kanposantuak, katolikoa eta zibila; 1739ko bando zahar bat, besteak beste, etxera erretiratze-ko ordua arautzen zuena; Untzagako San Juan ermita txikia


1900ean bota zutenekoa, Untzaga plaza berri eta udaletxe berria jasotzeko; Konbentzioko gerra, herriaren suntsiketa eta Marruko gerrillaria; A8 autobidearen Txontako Va, ingeniari lan handienetakoa eta “bakarra European”; herri lurrak saldu beharrean, herria pobretuta eta herritar xeheak lur-jota utzi zituen frantsesada (1808-1813); XX. mende hasiera, emakumeak, immigrazioa, apopiloak eta gaixotasunak; Urriko Iraultza Eibarren: 1934ko urriaren 5eko gertakariak; Untzagako dorrea, Salón



1409ko martixan 12xan, Eibarko Kontzejuak eta Plaentziako Irure eta Iraolagoitia baserriretakuak tratua eññ eben, luzaro demandan jardun ondoren.



1931. urteko abriilian 14an, martitzena, Eibarren II. Republika proklamau eban lehelengo herrixa izan zan. Goizeko sei retarako, izx herri osua Untzagako plazan euan. Alfonso XIII.aren erretratu ganbara baten gorde ei eben.



1557. urteko martixan 28xan demandia egon zan San Andres parrokiyan, alkatian eta Pedro Lopez de Ibarra artian, elixan, bata eta bestia nun jarri bihar ziran.



Teatroaren lekua hartu zuen Gipuzkoako etxebizitza-dorre altuena bihurtzeko; Jai-Alai 60-70 hamarkadetako musika eta aisialdiaren erreferente; gerraostea eta herriaren berreraikuntza; Eibarko jaiak eta ospakizunak, ohitura zaharrak, usadio berriak; eta, bildumaren azken biñetan, herriaren etorkizuna.

Urte berezia ospatzeko jarduera ugari

“Atzo goizeko ipuiñak” biñeta-bilduma argitaratzeaz gain, urte osoan zehar egin diren beste hainbat jarduerarekin ospatu nahi izan du Ego Ibarra batzordeak Eibarko herriaren 675. urteurrena.

Urtearen hasieran antolatu zuten efemeride esanguratsu horren inguruko logotipoa aukeratzeko lehiaketa eta Andrea Garcia Alvarez lanak irabazi zuen. Hori izan da urteurrenari lotutako guztientzat erabili den irudia. Martxoan, berri, Ego Ibarra batzordeak herriko ikastetxeekin batera egin-dako elkarlanari esker, Historian adituak diren hainbat irakaslerekin hitzaldiak eskaini zituzten.

Eta udazkenerako, berri, gure herriaren historia, Erdi Arotik XX. mendera bitarteko ibilaldia kontatzeko beste hitzaldi-ziklo bat prestatu zuten, Eibarko hainbat elkarteren

laguntzarekin. “Eibartik Eibarrrera” hitzaldi-zikloa irailaren 16tik urriaren 28ra bitartean egin zen eta guztira zazpi hitzaldi eskaini zituzten beste horrenbeste adituk.

Eta Klub Deportiboko Argazki Taldearen gidaritzapean, ‘Harro nago zutaz, Eibar! vs Amorratu egiten nauzu, Eibar!’ argazki-lehiaketa ere egin da.

Aipatutakoekin batera, parrokiako erloju zaharra zaharberritu da eta abenduaren 1az geroztik jendeak ikusteko moduan dago udaletxeko patioan. Ego Ibarra Batzordeak 2020an erlojua berreskuratzea erabaki zuen, eta Hirigintzari eskatu zion 2021eko aurrekontuan partida bat ezartzeko, lehengoratzelari horren gastuei aurre egiteko.

Eta, urtea amaitu baino lehen, abenduaren 18an ipini zuten ikusgai San Andres elizan Pedro de Iñarra jaunak 1673an elizari oparian emandako XVII. mendeko kantoral bat, bilduma baten kopia, hain zuzen.

Ego Ibarra batzordeak urteurreneko ekitaldiei urtarrilean emango die amaiera, kuarteraren horman jarriko duten argazki erraldoiekin eta Jon Bagues musikologoak San Andres elizako kantoralaren inguruan urtarriaren 22an eskainiko duen hitzaldiarekin. ■

Lehiaketa bitartez aukeratu zen 675. urteurrenako logotipoa.



**HEMEN***Musika taldea*

“Abestien letrek iragazki bat pasatzea ezinbestekoa da guretzat

**SOFIA MACHIN***abeslaria*

“Ez dugu baztertzeko etorkizunean gure abesti propioak sortzea”

urtarrila

2020 zoroa atzean laga ondoren, orri zuria bezala hasi genuen 2021. urtea. Eta hain zuria ere, elurtuta ekin genion urte berriari-eta.

Urkora igotzeaz aparte, beste pasio bat egiteko aukerarekin hasi genuen urtea, abenduaren 30ean inauguratutako Elgoibar eta Eibar arteko bidegorri berria estreinatu ahal izan genuelako.

Arlo politikoari begira, Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak sortu zuten ‘Autodefentsa proletarioa antolatu’ goiburuarekin. Eta udal politikari dagokionez, PSE-EEk eta EH Bilduk aurrekontu akordioa sinatu zuten.

Azken urteetan herriko politikan zeresan handia eman duen Errebaleko eraikin berriaren obrak azken txanpan sartu ziren, baina amaiera gertu izan arren, Errebal Plataforma elkarte gisa eratu zuten zenbait bizilagunek.

Ez zen herritarren kexa bakarra izan, Ranpa eta Truko elkarreak patinatzeke toki bila zebilen, Sautxiko skate-parkearen egoera kaxkarraz kexu.

Zientzia protagonista

Eibartik Martera, Tekniker planeta horretarako haize-sorgailua ekoizteko lanetan hasi zen, Horace proiektuaren barruan.

Gai zientifiko garrantzitsuena, ostera, COVID-19a izan zen. 2020a koronabirusaren urtea izan zen eta 2021ean bidelagun (ez desiratua) izan dugu. Birusari aurre egiteko asmoz, txertaketa egiten hasi genuen urtea Eibarren eta Astelena frontoia jarri zuten txertaketa-puntu bezala.




Elurpean hasi genuen 2021. urtea.

Eibarko Pentsiodunek **3** urte bete zituzten pentsio duin eta publikoak aldarrikatzen

Lurpeko **63** edukiontzi aldatzeko proiektua abiatu zuen Mankomunitateak

La Salle ikastetxeok **865** euro batu zituzten jostailuetarako



Tekniker Marte planetarako haize-sorgailua ekoizteko lanetan hasi zen.



GAIZKA ASEGINOLAZA
enpresaria eta
abenturazalea

"Oztopoak daudenean
aurrera egitea atsegin
dut eta bizitza sentitzea
gustatzen zait"



2020. urtearen amaieran inauguratutako Elgoibar eta Eibar arteko bidegorria estreinatu ahal izan genuen.



ANDREA GONZALEZ
gitarra-jolea

"Miamira joateko
aukera eman
zidaten bikaintasun
artistikoagatik beka
jasota; ezin izan nion
uko egin"

8.471.119 euroko Udal
Aurrekontua onartu zuten

Eibarrek **27.566** biztan-
le ditu, 2020an baino **282**
gutxiago

214 erreklamazio eta
1.742 kontsulta jaso
zituen KIUBek 2020an



JULIO ARRIZABALAGA
Biodonostiako zuzendari
zientifikoa

**“Pandemiari eman
behar zaio erantzuna,
ez herrialde aberatsei
bakarrik”**

otsaila

Aurreko urtean bat-batean eten behar izan ondoren, aurtan berriz itzuli dira Antzerki Jardunaldiak, 21 emanaldirekin.

Koronabirusak, ostera, eragin handia izaten jarraitu du gure egunerokoan eta pandemiak baldintzatuta bedeinkatu genituen San Blas opilak. Eta Aratosteetan antzera. Kalera irteteko aukera izan ez arren, Aratosteak ospatzeko beste alternatiba batzuk bilatu zituzten Eibarko ikastetxeek. Bestetik, Koko-dantzariak eta Kokomarruek bideo bat egin zuten Aratosteak girotzeko. Ostera, ez zen bestelako ekintzarik egin Aratosteetan.

Argia ikusten hasita, otsailaren 12az geroztik mugakide diren udalerrien artean mugitzea baimendu zuten. Eta EAeko Auzitegi Gorenak eremu gorrian zeuden udalerrietako ostatuak zabalteko baimena eman zuten.

Egoera horretan, hotzari eta euriari aurre egiteko, terrazetan jaimak jarri zituzten Toribio Etxebarria kalean, eta Udalak, Eibarko Merkataritza Gune Irekiarekin batera, erosketak on-line egiteko plataforma jarri zuen martxan: erosiebarren.eus.

Berri gehiago Udalarri buruz: 13 urteko agintaldiaren ondoren, Miguel de los Toyos alkateak dimisioa aurkeztu zuen eta Jon Iraolak hartu zuen lekukoa.

Benetako Zuloaga

Arlo kulturalan, Maite Arroita Jauregi jatorrizko musika onenaren Goya saria jasotzeko izendatu zuten Arantzazu Callejarekin ‘Akelarre’ pelikulan egindako lanagatik.

Ignazio Zuloaga Institutuak ‘El verdadero Zuloaga’ liburuaren aurkezpena jaso zuen, artista eibartarrari buruzko lana, bere jaiotzaren 150. urteurreneko ekintzen barruan.

Eta, ospatzen jarrita, Badihardugu Euskara Elkarteak 20. urteurrena ospatu zuen.

Ospatzeko gutxi Zaldibarko zabortearen inguruan, hondamendiaren lehen urteurrena bete baitzen eta zalantza asko zeuden airean oraindik. Bitartean, Joaquin Beltranen gorpuk lurperatuta jarraitzen zuen.



MAITE ARROITAJAUREGI
musikaria

**“Musikak irudiak
baino gehiago balio
du, irudiek eraman
ezin zaituzten tokira
eramaten zaitu”**



Miguel de los Toyosek alkatetza laga zuen 13 urtez agintean egon ondoren. Jon Iraolak hartu zuen lekukoa.

200 lagun bildu ziren
Untzagan presoentzako
konponbidea eskatzeko,
mosaiko erraldoia osatuz

Eibar hiriak **675** urte
bete zituen otsailaren
5ean

Edukiontzi grisera
botatzen den zaborraren
%65 birziklagarria da,
Mankomunitatearen
arabera



'El verdadero Zuloaga' liburua aurkeztu zuten Ignazio Zuloaga institutuan.



>>>>>>>

JULEN ZABALETA
marrazkilaria

"Igarri barik etorri
zaizkit 100 urteak,
entretentuta egon naiz
orain arte"



Badihardugu Euskara Elkarateak 20. urteurrena ospatu zuen



>>>>>>>

AMAIA GOROSTIZA
Eibar KEko presidentea

"Seguru nago egunetik
egunera emakume
gehiago ikusiko
ditugula kudeaketa-
lanetan"

	Zorionak eta Urte Berri On eibartar guztiei	
	AHOLKULARITZA eta GESTIOA EGOLAN Julian Etxeberria 7, 7-C	
	Tfnoa. 943 20 22 39 Mobila. 617 16 33 82 egolan.eibar@gmail.com	



OIER ARAOLAZA
antropologoa, dantzaria
eta kazetaria

“Munduaren konfigurazioa aldatzen ez dugun bitartean, nekez saihestuko dugu horrelako beste pandemia bat”



JON IRAOLA
Eibarko alkatea

“Herri osoari eragingo dioten gaietan ados ipintzeko ahalegin handiagoa egin beharko genuke”

martxoa

Martxoak kolore morea du. Aurten ere, noski, Martxoaren 8a ospatu zen, baina ez egunean bertan bakarrik, baizik eta hilabete osoan zehar hainbat ekintza antolatu ziren.

Ostalariak bat

Pandemiaren hasieraren lehen urteurrena bete zen martxoan, baina amaierarik ez dugu ikusi oraindik. Bere eragina egunerokoan atzeman dezakegu. Adibidez, UniEncounterren 17. edizioa formatu birtualean egin zen eta herriko ostalariak, egoerarekin arduratuta, San Andres Eibarko Ostalaritza Elkartearen sortu zuten, ostalaritzaren batasun beharrari erantzuteko. Bestetik, Mendi Jardunaldiak egin ahal izan ziren eta mendiko film onenak ikusi ahal izan ziren herrian.

Osasun arloa osasun-egoera txarrean

Greba eginez hasi zuten hilabetea zainzaileek eta EAeko sektore publikoko langileek. Osasun kontuekin jarraituz, Minbiziaren aurkako astean, AECC Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkartearen Debabarreneko Batzordeak kanpaina berria hasi zuen minbizia dutenei lagundu ahal izateko.

Goya eta ‘Txopitea eta Pakea’

Maite Arroitauregik Goya saria irabazi zuen eta, horren harira, ‘Txopitea eta Pakea’ saria ere eman zion Udalak. Goya sarietan, gainera, Donostian jaio baina familia eibartarra duen Jone Laspiur aktoreak ere saria jaso zuen.

Aurora Baskaran alkate ohia ere omendu zuten, sozialistek kasu honetan. Alde beltzean, Libe Beltolaza Eibarko sozialisten ohorezko presidentearen heriotzaren berri izan genuen.

El Casco behera

Udaberriaren hasierarekin, XI. Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka antolatu zuten Urkizuko parkean. Erdialdera joz, El Casco eraikina botatzeko lanak hasi zituzten.



Hainbat ekintza egin ziren hilabete osoan zehar Martxoaren 8aren harira.

Bikote bat atxilotu zuten
150.000 euro inguruko
iruzurra egiteagatik

Herri barruko gehienezko
abiadura **30 km/h**-n
ezarri zuten

Udalak **38.900** euroko
dirulaguntza eman zion
Eibar Merkataritza Gune
Irekiari, merkataritzari
laguntzeko



Pandemiaren lehen urteurrena bete zen martxoan.



>>>>>>>

JONE ARRAZOLA
Emagin elkarte

"Behar-beharrezkoa da gizonak inplikatzeko zaintza-sistema eraldatu nahi badugu"



Herriko ostalariek San Andres Eibarko Ostalaritza Elkarte sortu zuten.



>>>>>>>

MIREN ROS
hezitzailea

"Telefono mugikorra guk kontrolatu beharko genuke, ez berak gu"



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Bidebarrieta, 20
Especialistak plater prestatu
eta haragi bikainetan
ETXERA
ERAMATEN DIZUGU

943 20 16 69

 @Oberenaharategia





ANDER ARROITAJAUREGI luthieria

“Instrumentuak egitea gustatuko litzaidake eta alde batera lagatzea zaharbertitzeak eta doiketak”



ANGEL FERNANDEZ ZAPICO Eibar KE-ko utilleroa

“Foballari esker lortu dut herrian guztiz integratzea eta horregatik bakarrik oso harro nago”

apirila

Apirilaren lehen egunetan Aste Santua ospatu zen eta, ohikoa den bezala, opor egun hauetan Euskal Herriko Itzulia etorri zen gurera. Munduko gizonezko txirrindulari onenak lehiatu ziren Arraten gora eta Primoz Roglic eta Tadej Pogacarren arteko lehia ederra ikusi ahal izan genuen herrian. Itzuliaz gain, Valenciaga Memorialaren 50. urteurrena jokatu zen eta Pau Miquel izan zen irabazlea.

Kirolarekin jarraituz, Mikel Oyarzabal Realeko kapitainak Errege Kopa eman zion talde txuri urdinari, finaleko gol bakarria sartuta.

Herriko eskubaloiak 75 urte bete zituen eta, horren harira, hainbat ekimen jarri zituen martxan Eibar Eskubaloi Taldeak. Dena ez zen ospakizuna izan, ostera, Gojko Vucinic Arrate taldeko atezain ohia hil egin baitzen. Hura ez zen galera bakarria izan, Rosa Martinez-Alcocer aktore, hezitzaile eta ekoizlearen heriotza ere gertatu zelako.

Klub Deportiboak mendia eta kirola uztartu zituen Udaberriko Euskal Jaiaren harira, programa berezia eskainiz.

Eremu gorrian berriz

545, 97ko intzidentzia-tasarekin, Eibar eremu gorrian sartu zen eta perimetralki itxi zuten.

Pandemiaren ondorioz ezin izan zen Korrika egin, baina herrian ‘Bultza Euskaltegiak! Bultza Euskara!’ ekimena egin zen euskaltegiei babesa emateko.

Hilaren 14an 90 urte bete ziren Eibarren II. Errepublika aldarrikatu zela.

Hainbat eibartarrek ramadana ospatu zuten apirilean eta maiatzean zehar.

Hilaren amaieran Gazte Topaketak egin ziren, ‘Ixotu orrua, ixotu herria’ goiburuarekin.



Ezin izan zen Korrika egin, baina AEK-k ‘Bultza Euskaltegiak! Bultza Euskara!’ egitasmoa antolatua zuen.

Eibarrek **525.526** euro bideratu zituen Gizarte Larrialdietara

Lesboseko errefuxiatuei jaten emateko **8.000** kilo elikagai bildu zituen Zaporeak elkarteak eskualdean

Ignacio Zuloagak margotutako **28** koadroren kopiak zozketatu zituzten



Goi-mailako txirindularitzaz gozatzeko aukera izan genuen.



>>>>>>>

JUAN SANCHEZ VALLEJO
psikiatra eta idazlea

“Gazte bat ondo gizarteratzen ez bada, patologia mentalekin amaitzen du ia beti”



Gazte Topaketak egin ziren 'Ixotu orrua, ixotu herria' goiburuarekin.



>>>>>>>

MIKEL OYARZABAL
foballaria

“Zelai barruan, kanpoan zein kalean oso baloratua eta maitatua sentitzen naiz”

 **Larragest** 
INMOBILIARIA 690 610 715 ASEGURUAK 943 200 795
F. Calbeton, 22-24



ANE MIREN BARRERO

dantzaria

“Etorkizunean nire
akademia irekitzea
gustatuko litzaidake”



JUANJO ALVAREZ

Zuzenbide Pribatuko
katedraduna

“Alarma-egoera
hamabost egun gehiago
luzatzeak mesede
gingo zigulakoan
nago”

maiatza

Maiatzaren Lehenean sistema aldatzea eskatu zuten beharginek.

Urtero moduan, Argazkilaritza Maiatzean egin zen eta, maila handiko argazkilariak jasotzeaz gain, tailerrak eta erakusketak egin ziren herrian.

56. Euskal Jaia antolatu zuen Klub Deportiboak ekintza handiekin, baina formatu txikian. San Juan jaiei begira, ostera, Udalak adierazi zuen ez zituela jaietan ohikoak diren ekitaldiak antolatuko.

Herriko kulturak eta, batez ere, Usartza Txistulari Taldeak, galera handia izan zuen Elena Pe-rezen heriotzarekin. Bestetik, gure kolaboratzailea izan zen Carmelo Urdangari ekonomialari, idazle eta ekintzailea ere hil egin zen.

Bigarren Mailara berriz

Zazpi urteko ametsa bizi ondoren, Eibar KE Bigarren Mailara jaitzi zen eta zaletuek ezin izan zioten agur esan Lehen Mailari Ipuruan.

Txirrindularitzari dagokionez, maiatzean munduko emakume txirrindulari onenak izan ziren herrian, Eibarko Hiria Sari Nagusian. Anna Van der Breggen izan zen irabazlea, eta Annemiek Van Vleuten eta Elisa Longo Boghini egon ziren podiumean.

Eurak txikitatik ibili dira bizikleta gainean, eta hain zuzen ere txirrinduan dagoen neskato baten eskultura jarri zuten Eibarko Bizikleta Plazan.

Protestak eta mugimendua

Atzerrira begira jarrita, hainbat eibartar kalera atera ziren beste herrialde batzuetan gertatzen diren gatazkak salatuz. Batetik, Kolonbian gertatutako istiluengatik protesta egin zuten. Eta, bestetik, Marokoko indarkeriaren areagotzea salatu zuten sahararren aldekoek.

Elkarretaratzeekin jarraituz, lau hilabeteko etenaren ondoren eguenetako enkarteladak itzuli ziren. Pagatxa emakume elkarteak ‘Pagatxa mugimenduan’ prozesua jarri zuen martxan, bide berri bat hasiz.

Gipuzkoako pentsiodunek Eibar igaro zuten probintzia osoan zehar egindako bizikleta-ibilaldiaren barruan.



LGTBfobiaren aurkako eguna ospatu zen maiatzaren 17an.

288 eskaera onartu
ziren Errebaleko garaje
berrietarako

Udalak **200.000** euroko
partida jarri zuen fatxadak
eta igogailuak berritzeko

25 lagunek hartu zuten
parte Esperientzia
Eskolaren 16. promozioan



Eibar KE-k maila galdu zuen zazpi urteko ametsa bizi izan ondoren.



>>>>>>>

POESÍA... ERES TÚ
poesia taldea

“Pertsona nagusiak gara eta poesia oso lagungarria izan da guretzat pandemian zehar”



>>>>>>>

ENARA ETA GAROA MAGUNAZELAIA
xabalina-jaurtitzailak

“Gaur egun esan dezakegu ez gara inolaz ere hartutako erabakiaz damutzen”



Gipuzkoako pentsiodunek Eibar zeharkatu zuten probintzia osoan zehar egindako bizikleta ibilaldian.



2022ko gida
LASTER
ZUEN ETXEETAN

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafía
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea



PATXI BISQUERT aktorea

**“Naturazko zinea
gustatzen zait,
artifizio gutxi duena,
bihotzetara iristen
dena”**

ekaina

Kirol arloarekin hasiko gara. Eibartarrak FT-k 30. urte bete zituen eta, urteurren berezia ospatzeko, logo berria aurkeztu zuen. Eskubaloian, Grupo Mecalbe Eibar Eskubaloi taldea 1. Nazionalera igo zen. Eta xabalinan, Odei Jainagak, 84,80 metroko distantziarekin, bere markarik onena lortu zuen.

Eibartarrak ikur

Eibarren gauza handiak egin dituzten pertsonak jaio dira eta horietako bat da Enrique Zua-zua. Matematikariak Zientziaren Top Talent saria jaso zuen ekainean. Bestetik, Josu Gomez Barrutia Nazio Batuen Erakundeko bakearen enbaxadore izendatu zuten.

Jai giro gutxi

San Juan jaien inguruan zenbait ekitaldi antolatu ziren, baina ez zen inolaz ere ohiko jarduna izan. Ostera, Arrate Kultur Elkarrekin ikus-entzunezkoen edizio berria eskaini zuen San Andres klaustroan eta, ikus-entzunezkoak emateaz gain, bertso-trama ere egin zuten.

Arlo musikarari begira, hilabeteetako etenaldiaren ondoren, Eibarko Musika Bandak konzertua eman ahal izan zuen. Eta Euskadiko Ikasleen Orkestrak, EGO-k, Hezkuntza Esparruan prestatu zituzten udako saioak.



MAIALEN BILBAO artista

**“Lokalak hutsik ikusten
ditudanean beti
irudikatzen dut nire
marrazki-negozia
zabaltzea bertan”**



Mugak muga, San Juan jaiak ospatu ahal izan genituen.

Udalak **2.000** euroko dirulaguntza eman zion Gazari, Israelekiko gatazkaren biktimei laguntzeko

350 lagunek hartu zuten parte Deporrek antolatutako Eibarko Itzulian

300 ikasle inguruk hartu zuten parte ‘Basarrixa Urretik’ nekazal ingurura gerturatzeko programan



Yolanda Ruiz Eibarko udal artxibozainak agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarrean



>>>>>>>

ELISABETH QUINTANILLA
errefuxiatua

“Seme-alabak hona
etorri arte ez dut
bihotza lasai eta
bakean edukiko”



Euskadiko 12.000 ikaskek baino gehiagok egin zuten selektibitatea.



>>>>>>>

BIRJINIA ARRAZOLA
tortura jasan zuen
eibartarra

“Banekien nirekin
edozer gauza eginda
ere, Polizia Nazionalak
inpunitate guztia zuela”

Udalak **187.841** euro eman zituen Azitaingo industrialdean enpresa-haztegi berria zabaltzeko lanak egiteko

Ziriako Agirre kaleko irisgarritasuna hobetzeko lanentzat **234.000** euro inguruko aurrekontua onartu zuten

EGOk **72** musikagilek hartu zuten parte orkestrak Eibarren egin zuten egonaldian

Eibarko Kirol Sarien XXVI. edizioa

abenduak 31, barixakua
12:00etan, Coliseoan

SARI BEREZIA



Amaïur Mayo

EUSKERA SARIA



Ibon Arakistain Azkarate

ATLETISMOA



Igor Amorrosta

ERRUGBIA



Edurne Vidal

ESKIA



Julen Chacon

ESKUBALOIA



Victor Uriarte

FOBALLA



Iñigo Ugarteburu

HERRI KIROLAK



Hodei Ezpeleta

HIRU TXIRLO



Alex Campos

IGERIKETA



Elene Oyarzabal

JUDOA



Iker Martinez

JUGGER



Irati Juaristi

GIMNASIA ERRITMIKOA



Izaro Altuna, Sara Aranguren, Nahia Arguiz,
June Heredero, Indira del Pino eta Arrate Baroja

TENISA



Naya Blanco, Lorea Gandiaga, Ainhoa Martin eta Iraia Ibañez.

Abenduaren 31n, barixakuan, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 26. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Coliseoan, eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute. Modalitateei dagokienez, 25 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia izango dira. Guztira, beraz, 28 sari. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

KARATEA



Rosi Sanchez

KULTURISMOA



Eneko Baz

MENDIA



Javi Charola

PILOTA



Ibon Ibarra

SASKIBALOIA



Iñaki Sanchez

SILBESTRISMOA



Santiago Blanco

SQUASH



Yosu Gimenez

TRIATLOIA



Txomin Osoro

TXAKURKROSA



Andoni Mayo

TXIRRINDULARITZA



Jokin Amorrosta

WU-SHU



Teresa Barrado

XAKEA



Lander Aja

WATERPOLOA



Urbat-Urkotronik senior mailako taldea

SUSTAPENA



G. MECALBE

Mecalbe

PANDEMIAKIN ALDATUKO EZ DIRAN GAUZAK

EIBARTARRON OPTIMISMUA



ESAERA ZAHARRAK



OROITZAPEN ONAK



SAN BLAS ERREZETA



ZENTZUGABE MERIXAK



EIBARKO ETXE BERRIEN SALTEAILIK DONOSTIAN GAUZELA PENTZATZEA



uztaila abuztua

Udaren etorrerarekin, Eibarrek eta Debabarrenak eskaintzen diguten turismo aukerak ezagutu genituen horretarako prestatu genuen aldizkari berezi batean.

Hala ere, COVID 19aren pandemiak indarra hartu zuen uda inguruan, gazteei txertoak ematen hasi, farmazietan test azkarrak saltzen hasi, COVID ziurtagiriak eta bestelako neurri murriztai-leak hartu arren.

Errebal Plazia, behingoz

14 urte inguruko itxaronaldiaren eta horrek eragin dituen gorabeheren ondoren, Errebal Plaziak ateak zabaldu zituen.

Batzuk ireki eta beste batzuk itxi. Uztailaren 30ean El Corte Ingleseko ateak itxi zituzten, bide digitala hasiz; eta Alfa ikastetxearen eraikina bota zuten.

Olinpikoak

Mikel Oyarzabal foballariak eta Odei Jainaga xabalina jaurtitzailak Tokyoko Joko Olinpikoetan hartu zuten parte. Jainaga ezin izan zen bere sasoi onenean iritsi zita erraldoira, baina Oyarzabal goia jotzear izan zen, zilarrezko domina lortuta.

Agurrak

Enpresa munduari dagokionez, POESSA-k Alfa Hogar erosi zuen eta, ondorioz, guztiz desegin zen taldearen enpresa-partzuergoa.

31. Toribio Echevarria Sariak banatu ziren. 'Enpresa-asmoak' atalean Innovation Treek irabazi zuen eta 'Enpresa berria' atalean Polykey Polymers-ek.

Eibarrek eta, batez ere, Teknikerrek, galera handia izan zuten abuztuan, Alex Bengoa zentro teknologikoko zuzendari nagusia izan zena hil baitzen.

Galera handia ere arlo kulturallean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen hainbeste maite genuen Rafael Zubizarretak laga gintuelako.



Alfa ikastetxearen eraikina bota zuten.



VIRGINIA FERNANDEZ
musikaria

“‘The Belly’ diskoarekin zerbait freskoa lortu nahi nuen, gure benetako soinua jasotzea”



IRENE HERNANDO
antzerki laborategiko gidaria

“Txikitatik sentitu izan dut oso hutsune handia Eibarren antzerkiaren eta arte ezenikoaren alorrean”

Euskaltzaindiak **592** forma berri onartu zituen, tartean ‘Debabarrendera’

Mankomunitateak adierazi du iaz, 2020an, **100** txakur eta **32** katu artatu zirela bertan

14 fitxaketa egin zituen udan Eibar KE-k Bigarren Mailako txapelketari ekiteko



NEREA AGIRIANO
Aldatzeko irakaslea
Perun

"Proiektuak gauzaten ari direla eta bertakoengan eragin zuzena dutela ikustea oso pozgarria da"



PELLO BERRIZBEITIA
korrikalaria

"100 kilometroko lasterketa bat egiteko burugogorra izatea ezinbestekoa dela uste dut"

iraila

Pandemia ditzosoaren ondorioz, Arrateko Jai barik geratu ginen aurten ere. Hala ere, zenbait ekintza egin ziren (bertso-saioa, adibidez) eta Arrateko elizako erretaulak irudi berritua aurkeztu zuen, Ignacio Zuloagaren lau mihise zaharberri jarri baitzituzten.

Bestetik, Tallarra gaztetxeak 10 urte bete zituen eta bi eguneko egitarau betea antolatu zuten ospatzeko.

Berritasunak kulturari

Arlo kulturari begira, Andoni Vazquez Santos izendatu zuten Eibarko Musika Bandaren zuzendari, Carlos Sanchez-Barbaren tokia hartuta. Eta bestalde, Markeliñe antzerki-konpainiak inauguratu zuen Errebal Plazia, kulturarako gunea berria.

Hezurtegia komentuan

Heriotza lazarriak izan genituen irailean: Miguel Sagastume "Urkiko Magoa" soinu-jolea, San Andres gozotegiko Aitor Cano eta Ramon Tejada Oñatiko Orkatzategi mendian.

Ipuruako mojen komentuko hilerri zaharreko hezurtegia agertu zen. "Erljiosoen, ezjakintasunagatik edo akatsagatik, ahaztu egin zuten hezurtegi hori hustu beharreko gauzen artean sartzea", alkatearen berbetan.

Baina dena ez da hain iluna. Izan ere, herriko gazte talde batek sortutako Munduari kolorea Emanen GKE berriak elikagaiak eta dirua bildu zuen Elikagaien Bankuari laguntzeko.



Andoni Vazquez izendatu zuten Eibarko Musika Bandaren zuzendari berria.

18 talderekin eta **300** jokalar bano gehiagorekin hasi zuen denboraldia Eibar Eskubaloiak

173 umek hasi zuten ikasturte berria Haur Hezkuntzan eta **297** ahurrek Lehen Hezkuntzan

20 urte bete ditu aurten ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Berbetan programak



Arrateko Jaien egitaraua bertan behera laga ondoren, herriko eragileek protesta egin zuten.



>>>>>>>

JÜRGEN LANDA
musikaria

“Batzuk kirola egingo dute, beste batzuk idatzi... Nik beti jotzen dut musikara: triste nagoenean, pozik nagoenean...”



Herriko umeeek ikasturte berriari ekin zioten.



>>>>>>>

IGOR ETXABE
ikerlaria

“Eibartarrak benetan abilak izan ziren kanpoko botereguneekin konektatzen”

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

**Izadi**

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera



ARRATE BERSALUZE Debabarreneko Kaleratzeak Stop

“Egoera larrian
dagoenari neurri
justuagoekin bertatik
irteten laguntzea
bezalakorik ez dago”



ARANTZA LASA historialaria

“Lan-kontziliazioan eta
halakoetan mantsoegi
goazela esango nuke”

urria

Politika arloan nahiko hilabete zalapartatsua izan zen urria. Batetik, Udalak azpikontratatu-ko garbitzaileak murrizketen aurka agertu ziren eta pentsiodunen borroka kalera atera zen berriz Adinekoen Egunean, urriaren leian.

Eta bestetik, PSE-EEK eta EH Bilduk akordio historikoa lortu zuten Barrena eta Azitain inguruak biziberritzeko. Hala ere, hainbat bizilagun trenbidea estaltzeko proiektuarekin haserre agertu ziren, protesta biziak hasiz.

Munduko Txapelkun eibartarra

Kirolean, Mirandelan (Portugal) jaiotako Edu Sousa eibartarrak areto-futboleko Munduko Txapelketa irabazi zuen Portugalekin.

Kirolarekin jarraituz, Hodei Ezpeletak Urrezko Aizkolari Txapelkun Liga irabazi zuen.

Musika eta irudiak

Kultur arloan, Oskorri, Hiru Truku eta Igelaren Banda taldeetan ibili ondoren, Bixente Martinezek bakarkako bere lehen lana argitaratu zuen: ‘Txoria buruan eta ibili munduan’.

Maite Arroita jauregik, bestetik, arrakastaren bidetik jarraitu zuen. Eibarren kontzertu zoragarria eskaini ondoren, Platino saria jaso zuen ‘Akelarre’ pelikulan egindako lanarengatik.

Bestetik, Oscar Manso gasteiztarrek irabazi zuen Ohorezko Indalecio Ojanguren Saria. Eta ikusentzuzko dagoekenez, Altzoa Eibarko Emakume Alargunen Elkartek “Altzoa, begirada bat” dokumentala aurkeztu zuen, elkartaren 25. urteurrena dela-eta.



Esther Astarloak Esther Galarzari lekukoa hartu zion Zeramika Eskolaren buruan.

Helduen Hezkuntza
Ikastetxeko **400** ikasleek
klaseak hasi zituzten

25 ikaslek eman zuten
izena Esperientzia
Eskolaren 17. promozioan
parte hartzeko

38 parte-hartzaile, **62**
bilduma eta **189** argazki
jaso ditu Indalecio I. Ojan-
guren Argazki Lehiaketak



Baso Biziak taldekoek ezkur landaketa egiteko egitasmoa jarri zuten martxan.



>>>>>>>

IDOIA LAHIDALGA
dokumental egilea

“Erronkariko emakumeen oroimenak denboran aurrera jarraitzea lortu nahi dugu”



Barrena inguruan trenbidearen gainean paseoa egiteko proiektuak hautsak harrotu ditu.



>>>>>>>

MIREN ATRISTAIN
biologoa

“Oso interesgarria izango litzateke Aixola erostea eta Artikutzako esperientzia errepikatzea”

GAUR
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
KONPONKETA
ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
AUTOMATIKOAK ETA
BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea Telefonoa 943 20 62 40
nagore@egaur.com

BOLINTXO
OKINDEGIA
GoZoTEGIA

Eguneroko
ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal) ☎ 943 20 36 06 (Legarre)



BIXENTE MARTINEZ musikaria

“Musika sortzean beti dago arriskua, baina arriskutik datoz gauza berriak”

azaroa

Kirol arloari dagokionez, Udazkentraila egin zen, Asier Cuevas Herri Lasterketak Eibarko kaleak hartu zituen, Behobia-Donostia proban 96 eibartar ibili ziren eta Pello Osorok triatloi kros modalitateko Espainiako txapelketa irabazi zuen. Gainera, Udalak ‘Txopitea eta Pakea’ eman zion Mikel Oyarzabali.

Hammond vs Helmholtz

San Andres jaiak ospatzeko egitaraua prestatu zuten Udalak eta herriko eragileek, baina azkeneko orduan zenbait ekintza bertan behera laga zituzten pandemiaren egoera dela-eta. Gaztainerre eta Festa do Agosto, ostera, bai ospatu ahal izan ziren.

San Andres egunean ez zen azokarik egin, baina Coliseoan festa handia bizi izan zen. Izan ere, Jesus M^a Agirrek eta Aitor Alberdik Euskal Herriko eta Espainiako musikari handiak bildu zituzten Coliseoan, Helmholtz eta Hammond organoak uztartuz.

Kulturarekin lotuta, 52 film labur eman zituzten Asier Errasti Film Laburren jaialdian, tartean zenbait autore eibartarren lanak.

Merkataritzan euskaraz

Bestelako kontuetan, Manex 4.0 proiektuak irabazi zuen On Ekin lehiaketaren 9. edizioa. Andreteak eta herriko mugimendu feministak zenbait ekitaldi antolatu zituzten Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Eneko Andueza politikari eibartarra PSE-EEren idazkari nagusi izendatu zuten. Eta ‘Eskatu eskaini euskaraz. Betikoa. Gertukoa’ kanpaina jarri zuten martxan, herriko saltokietan euskararen erabilera bultzatu asmoz.



FRAN LASUEN musikaria

“Antzerkiaren edo zinearen munduan musika egiteko prozesua kolektiboagoa da”



Breaking Eibar izeneko dantza-jaialdiaren seigarren edizioa egin zen Errebal Plazian

Sprilur-ek Matsariako **12** pabilioi erosiko ditu, **3'8** milioi ordainduta

90 kiloko kalabaza jaso zuten Arrate Balleko Lezeta baserrian

Errebal Plazia eraikinaren obra zibilak **7.649.257** euroko kostua izan zuten



Urtebeteko geldialdiaren ondoren, Sostoa abesbatzak indarberrituta ekin dio bide berriari.



>>>>>>>

SUSANNA MINGUELL
idazlea

“Hurtzaroko sexu
abusuak erasotua eta
erasotzailearen arteko
kasutik haratago doaz”



Mikel Oyarzabalek 'Txopitea eta Pakea' jaso zuen.



>>>>>>>

JOL IGARTUA
abeltzaina

“Lehen sektoreak
benetan bultzada
emango dion
plangintza on bat behar
du, benetan aurrera
egitea nahi badugu”

Iker Elorza Beitia
Tel. 628 33 85 26
e-mail: legalbide@gmail.com

LEGALBIDE
Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatuak

Ibarkurutze, 5
943 20 37 15

altzariak
koltxojak
eta sukaldeak



JULEN BOLLAIN ekonomialaria

“Gaur egun lanak ez du bizitza duina bermatzen, beste alternatiba batzuk bilatu behar ditugu”

abendua

Euskararen Egunean, abenduak 3a, ospakizun gutxi egin zen, baina aldarrikapen ugari.

Euskararekin jarraituz, Euskaltzaindiak ohorezko izendatu zuen Luis Alberto Aranberri ‘Amatiño’. Eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak COVID-19aren ondorioei aurre egiteko laguntzetatik kanpo utzi zituen ...eta kitto! eta beste hainbat hedabide.

Gabon zoriontsuak?

San Andres jai barik geratu ondoren, esperantza guztiak Gabonetan jarriak zeuden, baina agintariek ekintza gehienak bertan behera lagatzeko erabakia hartu zuten. Gabonen atarian, gainera, neurriak zorroztu zituzten.

Hala ere, ohikoak diren zenbait ekintza egin ahal izan ziren, tartean VI. Gilda Lehiaketa. Arkupe eta Baratze izan ziren irabazleak.

Kirolariak martxa betean

Kirol arloan, Hodei Ezpeletak beste txapel bat eskuratu zuen urte amaieran, 1. Mailako Euskadikoa hain zuzen ere. Ipuruako gimnastak ere pozik egon daitezke, Euskalgym txapelketan nagusitu zirelako. Eta, azkenik, Eneko Bazek munduko txapel jantzi zuen AEB-eko Las Vegasen jokatu zen Kulturismo Naturalean. Gainera, Ipuruako kiroldegiko teilatua eraberritzeko lanak hasi zituzten.



MIREIA UGARTEBURU boluntarioa

“Boli Kostakoa esperientzia bikaina izan da”



Euriteek kalteak sortu zituzten Eibarren eta Debarrena guztian.

Kalamua taldeko ordezkariak **11** dominarekin itzuli ziren Espainiako Jiu-jitsu Txapelketatik

Udalak **2.750.000** euro ordaindu zituen Barrenan dagoen Hijos de A. Gabilondo enpresaren lursailak eta eraikinak erosteko

81 sari banatu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Gabonetako rifan



Ustekabe fanfarreak 'Eibarko kantak' izeneko diskoa aurkeztu zuen Coliseoan.



>>>>>>>

EDUARDO APODAKA
Juan San Martin bekaren irabazlea

"Filosofian egiten ari dena jaso eta modu ulergarrian zabaldu nahi dugu, euskaraz"



Roberto Perez Jauregi omendu zuten udaletxean.



>>>>>>>

IÑIGO JIMENEZ
todoterrenoaren rallyak

"Gure Patrolarekin irabazita, gero aukera izan genuen super prototipo batean ibiltzeko"



Urterik zailenetakoari agur

Joateko gertu dugun urtea ez da inorentzat erraza izan. “Nork esango zigun hau etorriko zenik!” esaldia zenbat aldiz errepikatu ote dugun azken hileotan. Galera berreskura ezinak eragin dizkigu birus maltzurak; mundua aldatu egin da; gure arteko harremanak aldatu egin dira eta moldatzen saiatu gara nahi, jakin edo ahal izan dugun moduan.

Hala ere, lehendik baztertuak eta gutxiestuak zeudenei edo zaurgarrienak zirenei bortitzago kolpatu die egoera honek, eta bizirauteko egindako saiakerak ez zaizkie behar bezala baloratu eta aintzat hartu, ez eta lagundu ere.

Euskalgintzaren kasua da hori, eta ...eta kitto! Euskara Elkartearena bereziki.

...eta kitto! Euskara Elkar-
tea 1992an jaio zen, eta gaur
egun 1.000 bazkidek gora
ditu. Urte hauetan guztietan
elkartearen jarduna handitu,
egokitu eta modernotu egin
da, beti ere Eibarren euskara-
rekiko dauden premiei ahalik
eta azkarren erantzun nahian.
Eibartarrek argi dute hori, ger-
tu sumatzen dute elkartea eta
ia 30 urte hauetan herritarren
babesa gertu sentitu dugu (eko-
nomikoa zein soziala).

Euskara elkar-teok “estuasu-
neko anbulantziak” gara, edo-

zein larrialditan deituz gero
erantzungo duena. Eta elkar-
teak pozarren betetzen du lan
hori, bere funtzio sozial horre-
tan sinesten duelako. Baina ez
da gauza bera gertatzen insti-
tuzioen aldetik. Ezinbesteko-
tzat gaituzte, baina ez dute gure
funtzioa eta lana duintasunez
baloratzen. Hala balitz zaila li-
tzateke azkeneko hilabeteotan
bizitakoa ulertzea:

...eta kitto! herriaren zerbi-
tzura jarri zen pandemiaren
lehen momentutik, behar ziren
zabalkunde-mezuak eman zi-



ren, etxetik atera ezinda geundenean informazioa emateaz gain entretenimendua ere eskaini zuen astekariak, gure kaleko begiak izan ziren eta, ohiko paperezko 42 alez gain, beste hiru ale kaleratu ziren online. Etxean euskara praktikatzeko aukerarik ez zutenei online, telefonoz... euskara erabiltzeko aukera eman zitzaizen, familientzat umeekin euskaraz jarduteko dozenaka jolas edo dinamika antolatu zituen elkarteak, denda eta establezimenduen egoeraz kezkatuta #EibarrenBadakagu, #nikEibarrengastaukot kanpaina abiatu zen (2020ko apirilaren 2an bertan), Txikitto! umeen hilabetekariko 2020ko ia ale guztiak uztailean prestatu eta irailean banatu ziren (eskolak itxiz gero umeei euskaraz irakurri eta entretenitzeko zerbaite izan zezaten), aforoak murriztuta bertso-saioak egin dira, ipuin-lehiaketak eta sari-banaketak online, bertso-paper lehiaketak, Euskararen Transmisioa eta Sozializazioari buruzko Mintegia (Euskal Herri mailakoa) presentziala egin zen eibartarrentzat eta online gainontzekoentzat (100 lagunetik gora eman zuten izena)... Luze joenezake egindakoak izendatzen, oztopoak oztopo hitzartutakoa eta gehiago bete dugula esan arte.

Euskara Elkarteok ez dugu enpresa izaera, gure asmoen barruan ez dago diru-irabaziak izatea, irabazi asmorik gabeko elkarteak gara. Baina, aldi be-



rean, beste edozein enpresak dituen betebeharrak dituguk ere, eta dirulaguntzetan sartu ahal izateko zorrotzagoak dira gurekin. Gizarte Segurantzara ordaindu behar dugu, jakina, baina ezin dugu enpresek egiten duten bezala ordainketa prorranteatu edo zatitu; mutuak, ogasuna, argindarra, telefona, maskarillak, gela... berdin-berdin ordaindu ditugu (besteok bezala), baina enpresei zuzendutako laguntzetan ezin izan gara sartu (ERTEak izan dituzten enpresei zuzendutakoak, edo kaleratzeak ekiditeko laguntzetan, edota lanaldien murrizketetakoetan...).

KPIa aplikatu gabe

Den-dena bete behar izan dugu, COVIDak gugan eragirik izan ez balu bezala, baina guretzat diru-iturri diren zerbitzuak, jarduerak edota ekintzak burutu gabe (herriko jaiekin lotutakoak, publizitate-lanak, itzulpenak, euskara planak, Sagardo Eguna, tonbola...). Zein egoeratan lagatzen gaitu horrek? Herritarren babesari esker bizirauteko aukera izan dugu, baina ...eta kitto! Euskara Elkarteak, herritarren babesaz gain, erakundeena ere "merezki"/ behar du.

Instituzioek ezinbestekotzat gaituzte, baina ez dute gure funtzioa eta lana duintasunez baloratzen

Faltan sumatu dugu Udalaren babesa. Udalarekin dugun dirulaguntza-hitzarmena urtero berritzen da; bi edo hiru urterako hitzarmena izango balitz, egonkortasun gehiago izango lukete elkartearen egitasmoek. Bestalde, ez zaie KPIrik aplikatzen; 2016an berriztu ziren azkenekoz hitzarmenak, ordutik %8,2 igo da KPIa, eta, beraz, Udalaren aldetik jasotzen duguna gero eta gutxiago da. 2020an zein 2021ean jaisteko saiakerak egon diren arren, zorionez ez da horrelakorik gertatu.

2022ari begira Udalak ...eta kitto!-k, eta euskalgintzak orokorrean, betetzen duen funtzio soziala errekonozitzea eta duintasunez laguntzea bidezkoa litzateke. Duintasuna aipatzerakoan ez da ekonomikoa soilik, babesa eta jarduerak burutzeko interesaz edo erraztasunetaz ere ari gara. Zer gertatuko litzateke gure jarduna erabat etengo bagenu? Horrenbeste murrizketa egin ditugu, langilegoa kaleratzea besterik ez zaigula gelditu; hiru langile gutxiago gaude pandemia hasi zenetik. Horrek esan nahi du gure plantilla ia %30ean murriztu dela, eta funtzio eta eginkizun horiek besteen artean banatu ditugula. Ondorioz, Ongietorri bezalako programa (etorri berriak euskal kulturara eta euskarara hurbiltzeko, elkarbizitza eta integrazioa lantzeko programa) bertan behera laga behar izan dugu (Udalak ez zuen lehendik ere diruz laguntzen). Langileok lanaldi luzeagoak egin behar ditugu, asteburu eta jaiegun askotan ere lana (2020ko martxotik). Egoera hau ia bi urtez eutsi daiteke? Bidezkoa da? Eibarko Udalaren euskararako diru-partida duina da? Galdera hauen guztien gaineko hausnarketa beharrezkoa da.

**...eta kitto!
herriaren
zerbitzura
jarri zen
pandemiaren
lehen
momentutik**

Eskerririk asko 2021ean gurekin kolaboratu duzuen argazkilarik guztiei:
 Malen Jainaga, Periko Iriondo, Ramon Beitia, Fernando Solana,
 Jorge Rodriguez, Bakarne Elejalde, Pedro Arriola, Joxe Aranberri,
 Jose Luis Irigoien, Edu Gisasola, Ana Dodero, Maitane Campos,
 Malen Illarramendi eta Ray Muñoz.





Gabonetako zozketako ordezeko zenbakien txanda

Abenduaren 13an egindako zozketako irabazleek euren sariak jasotzeko epea amaitu da eta orain ordezeko zenbakien txanda hasiko da. Urtarrilaren 12ra arteko epea dute ordezekoek (00:00ak arte) sariak jasotzeko. Jarraian duzuen zerrendan dituzue saria duten ordezeko zenbakiak.



1. E1 CORTE INGLES	500 €-ko OPARI TXARTELA	6482
3. BENICOBA	PATINETEA	8945
9. JORGE VEGA	ORAL B VITALITY HORTZETAKO ESKULA ELEKTRIKOA	863
12. EMANKOR TALDEA	CECÓTEC PISUA	2077
14. EIBAR BUS	PHILIPS ILEA MOZTEKOA	3632
15. EIBAR BUS	VALIRA TERMOA	4191
16. EIBAR BUS	TAURUS TXIGORGAILUA	1377
21. INDUSTRIAS M A I L	SOLAC KAFETERA	4165
23. MUGIKA HARATEGIA	70€-KO EROSKETA BALEA	5094
30. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	6802
36. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	660
37. EL CANTON DE LA AVENIDA	BI SOBRE URDAIAZPIKO PALETILLA IBERIKOA	1912
39. TORREKUA GASOLINDEGIA	30 €-KO GASOLINA BONOA	2033
40. KANTOI GASOLINDEGIA	25€-KO GASOLINA BONOA	7789
45. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	9022
46. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	1366
48. ZORIONAK	BI ORDUKO JOLASA	1190
51. ZORIONAK	LARUNBAT GOIZEKO TAILERRA	824
53. ZORIONAK	LARUNBAT GOIZEKO TAILERRA	6808
54. UNZAGA PLAZA	AFARIA-BI LAGUNENTZAKO	4711
55. ARTOLA	MENUA-BI LAGUNENTZAKO	2421
56. AKARA	MENUA-BI LAGUNENTZAKO	876
58. IZADI	LORE ZENTROA	9096



59. ASKASIBAR	MOTXILA BAT ETA MIKROFIBRAKO TOALLA	3966
60. ASKASIBAR	MOTXILA BAT ETA MIKROFIBRAKO TOALLA	1505
63. EIBAR SASOIAN	IMBALANCE KLASE BAT	8757
64. GRATZINA	BOLTSO BAT	1357
65. GRATZINA	BOLTSO BAT	759
66. IREI ESTETIKA	AURPEGI-GARBIKETA	3999
72. KOPIÑA	JOTT MOTXILA	1703
77. BAISI	ENATE TXURIA MAGNUM BOTILA	6204
78. DEPOR	MAILLOTA	6211
80. Ane Campos nutrizionista	GORPUTZ AZTERKETA	4171
81. Maider Carrasco estetizista	AURPEGI-GARBIKETA eta HIDRATAZIOA	754

Abenduak 30 / Urtarrilak 13

EGUENA 30

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.



BARIXAKUA 31

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

EIBARKO KIROL SARIAK

12:00 XXVI. Eibarko Kirol Sariak. Gonbidapenak egunean bertan jasoko dira, leihatilan, 11:00etatik 11:45era. Coliseo antzokia.



SAN SILBESTRE

17:00 / 18:00 San Silbestre lasterketa. Ibilbidea: Toribio Etxebarria, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Karmen, Barakaldo, Arragueta, Errebal, Julian Etxebarria, Toribio Etxebarria.

MANIFESTAZIOA

19:00 "Euskal preso eta iheslariak etxera". Untzagatik abiatuta.

ZAPATUA 1

TALDE ARGAZKIA

10:30 "Euskal preso eta iheslariak etxera". Untzagatik abiatuta.

ASTELEHENA 3

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

MARTITZENA 4

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

MAGIA

17:00 Hodei Magoa: "Ezinezkoaren logika". 5 euro. Coliseo antzokia.



EGUAZTENA 5

HIRU ERREGEAK

17:00 / 20:00 Errege Magoen bisita. Udaletxe patioa (bakarrik aurretik hitzordua hartu dutenentzat).

ZAPATUA 8

NEGULEKUAK

Aurretik txanda hartu behar da derrigorrez. Hitzordua hartzeko: <https://hitzorduak.eibar.eus/astelenaparkea/eu>. Errebal Plaza, San Andres eskola eta Astelena pilotalekua.

MARTITZENA 11

HARIXA EMOTEN

19:00 dazlearekin Harixa Emoten: Nerea Arrien, "Jende likidoa". Portalea (1. batzartokia).



ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 9ra arte:

– "ONDAREARI BEGIRA" (Armagintzaren Museoa)

– EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA (Portalea)

Urtarrilaren 16ra arte:

– "COSMOLOGÍAS", Alicia Martin Lopez (Portalea)

– "MUGA/FRONTERA", Viviane Straub. (Portalea)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

ANTZERKIA

30ean (eguna)

17:00 Ermua Antzokia

"Epa! Txiki", Demode Quartet taldearekin.



ERMUAN

KONTZERTUA

Urtarrilaren 3an (astelehena)

16:00 / 18:00 Ermua Antzokia

"Go!azen 8.0" telesaileko protagonistekin.



SORALUZEN

KONTZERTUA

Urtarrilaren 8an (zapatua)

19:00 Herriko Antzokia

Piter Ansorena & Joserra

Senperena. "Euskal Danbolinaren Aroak".



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)

OSTE 30



OSTI 31



LARUN 1



IGAN 2



ASTELE 3



Hildakoak

- **Jesusa Gorrotxategi Askasibar.** 92 urte. 2021-12-22.
- **Carmen Herrero Sebastian.** 87 urte. 2021-12-23.
- **Maura Gutierrez Tejedor.** 93 urte. 2021-12-26.
- **Javier Osoro Arluziaga.** 79 urte. 2021-12-26.
- **Lourdes Ortiz de Zarate Arzelus.** 85 urte. 2021-12-27.
- **Petra Bidaurre Galdeano.** 95 urte. 2021-12-28.
- **Galo Saceda Teruel.** 84 urte. 2021-12-28.

Jaiotakoak

- **Brais Tiburcio Acosta.** 2021-12-14.
- **June Gutierrez Alvaro.** 2021-12-20.

Farmaziak

EGUENA 30

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

BARIXAKUA 31

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ZAPATUA 1

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

DOMEKA 2

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 3

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

MARTITZENA 4

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

EGUAZTENA 5

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

BARIXAKUA 6

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 7

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

DOMEKA 8

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

ASTELEHENA 9

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

MARTITZENA 10

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUAZTENA 11

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

EGUENA 12

EGUNEZ | Mendiñueta (Urkizu, 6)

BARIXAKUA 13

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendiñueta (Urkizu, 6)

Jesus Mari Hermosa Alberdi "Txuss"

(2021-12-20)

ESKERRIK ASKO une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta familiako guztioi.

ETXEKOAK



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MALEN**, gaur 10 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat zure famelixaren partez!!!



Zorionak, **LIHER**, atzo 6 urte bete zenuz-eta. Asko maite zaittuen famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AINHOA**, urtarrillaren 10ian urtiak beteko dozuz-eta. Jarraitu bihurri eta alaixa izaten. Musu bat etxekuen eta, batez be, amatxoren partez.



Zorionak, **NAIKE**, gure etxeko sorgintxua! Asko maite zaittugu! Koikilli, Artzai, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **IKER!!** Azkenian heldu da zure eguna. 7 urte!! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **BITTOR!!** Hillaren 28xan 6 urte bete zenuz-eta. Ondo ospatuko zenuan ingurukuekin, ezta? Patxo haundi bat famelixaren partez!!



Zorionak, **NAHIKARI** eta **JULENE**, martitzenian bi urte beteko dozuez-eta. Laztan haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, tío **IÑIGO** (urtarrillak 5) eta **IKER** (urtarrillak 11), zeuen urtebetetzietan. Ondo ondo ospatu. Laztan haundi bana danon partez.



Zorionak, **LIER!** Domekan 2 urtetxo eingo dozuz-eta. Oso ondo pasa eguna eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **2an:** 17:00, 20:00
- **3an:** 17:00, 20:00

"West Side Story"

Zuzendaria: Steven Spielberg



2 ARETOA

- **2an:** 17:00, 20:00 (antzokia)
- **3an:** 17:00, 20:00 (antzokia)

"Matrix Resurrections"

Zuzendaria: Lana Wachowski



ANTZOKIA

- **2an:** 17:00, 20:00 (2 aretoa)
- **3an:** 17:00, 20:00 (2 aretoa)

"¡Canta 2!"

Zuzendaria: Gary Jennings



Iragarki laburrak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisuak salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta koina. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. Tel. 605711422.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679214891.
- Neska euskalduna (unibertsitateko irakaslea) eskaintzen da umeak jaso, etxera lagundu eta eskolako lanetan laguntzeko. Baita nagusiei paseoan laguntzeko. 16:00etatik aurrera. Tel. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako. Titulua eta esperientziarekin. Tel. 643574998.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan lan egiteko edo beste edozein arlotan jardutan. Tel. 631363951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631109062.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, umak zaintzeko eta bestelako lanetarako. Tel. 660542155.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazio ikastaroa eginda) eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 642-195774.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642786320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta laguntzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 643929554.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta lorezain lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 645956966.

6.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da jornada osorako Eibarren. Currículuna bidali: eibarkafe@gmail.com
- Ileapaintzailea behar da. Esperientzia baloratuko da. Tel. 943254776.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 661955980.
- Lan egiteko honako hiru perfilak behar ditugu. Ezagutza informatikoak dituen (.net, Java, Python eta Redes lengoaietan aditua), elektromekanikan aritua eta, azkenik, komertzial bezala. Bidali curriculumak: urkotronik@urkotronik.com. Berehala hasteko moduan.

5. IRAKASKUNTZA

5.1.. Eskaerak

- Ingeleseko partikular irakaslea behar dut Erasmus prestatzeko. Tel. 616479840.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia oparitzen da. Prezioa adosteko. Tel. 667549101.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

PROMOZIO BERRIA TITANIOZKO INPLANTEETAN
URTARRILAREN 31-RA ARTE



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943 36 63 77

RPS 181/19

XXVI. Eibarko
Kirol Sariak

Abenduak 31
12:00etan
Coliseoan



**Eibarko
KIROL
SARIEN**

XXV. edizioa

**Covid pasaporteak
aurkeztu beharko da**

**Gonbidapenak
egunean bertan
jasoko dira leihatilan
(11:00-11:45)**



**ZORIONAK EIBARKO KIROLARI ETA KIROL KLUB GUZTIEI
urte osoan aurrera eramandako lan guztiarengatik.**

Urte berria, energia berriak!

Jai hauetako ospakizuna urte handi baten hasiera izan dadila.



Movement that inspires

KIA
NAIA CAR

📍 Apalategi, 1 EIBAR

☎ 943 70 70 33 📞

www.kia.com